

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Hiri- eta landa-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokion kotizaziopeko errolda. 2026ko ekitaldia. (Espediente: 2026/150)

Arabako Foru Aldundiak Kuartangoko udalerriko hiri- eta landa-izaerako ondasun higiezinaren gaineko udal-zergari buruzko kotizaziopeko errolda egin du 2026ko ekitaldirako.

Alkate-udalburuak, 2026-64 zenbakiko ebazpenaren bidez (2026ko uztailaren 21ekoa), jendaurrean jartzea onartu du hamabost (15) egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Interesa dutenek udaleko bulegoetan aztertu ahal izango dute erreferentziako zerga-espediente, 9:00etatik 14:00etara. Egokitzeak jotzen dituzten azalpenak, alegazioak eta/edo erreklamazioak ere egin ahal izango dituzte.

Kotizaziopeko erroldak jendaurrean jartzeak errolda osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa dakar, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera. Zergadunek berraztertze errekurtsoak jarri ahal izango dituzte alkate-udalburuaren ebazpen horren aurka, hilabeteko (1) epean, iragarki hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Azalpenak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsoak alkate-udalburuari jarriko zaizkio, lehen adierazitako epeetan.

Borondatezko aldian biltzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2026ko urriaren 1etik 2026ko azaroaren 30era, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak 2026ko azaroaren 6an kobratuko dira.

Zerga hau helbideratuta ez duten zergadunek honela ordaindu ahal izango dute:

- Kutxabankeko sukurtsaletan, banketxe horiek irekita eta ordainagiria aurkeztuta.
- “Nire ordainketa” ren bidez, udalaren web orriko ordainketa-pasabidean.

Borondatezko epean dirua biltzeko epea amaitutakoan, ordaindu gabeko kuotek premia-mendu-prozedurari eragingo diote automatikoki, eta lege ezarritako errearguak eta, hala badagokio, berandutze-interesak eta sortutako kostuak sortuko dituzte.

Zuhatzu Kuartangon, 2026ko uztailaren 22an

Alkate-udalburua
MIREN MEABE CARRO